



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Udal Kultur Etxea (Basauri)

Iraupen luzeko aldi baterako emlegua egonkortzeko salbuespeneko deialdia eta oinarri espezifikoa, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietarik eratorritakoa, administrari laguntzaile lan kategoriar dagokiona.

Iraupen luzeko aldi baterako emlegua egonkortzeko salbuespeneko deialdia eta oinarri espezifikoa, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietarik eratorritakoa, administrari laguntzaile lan kategoriar dagokiona

2022ko abenduaren 7an Basauriko Udal Kultur Etxearen Presidenteak Ebazpena onetsi du, erabakien atalean honako hau dioena:

Lehenengoa: Administrari laguntzaile bi lanpostu txanda librean hautatzeko deialdia onartzea.

Bigarrena: Administrari laguntzaile bi lanpostu txanda irekiaren bidez eta leihaketa bidez betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoa onartzea.

Hirugarrena: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea, bai eta deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean ere.

Laugarrena: Deialdia onartzen duen ebazpenaren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Basaurin, 2022ko abenduaren 7an.—Basauriko Udal Kultur Etxearen Presidenteak, Maria Larrinaga Artetxe



**IRAUPEN LUZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO
SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK, 20/2021 LEGEAREN
6. ETA 8. XEDAPEN GEHIGARRIETATIK ERATORRITAKOIA ADMINISTRARI
LAGUNTZAILE LAN KATEGORIARI DAGOKIONA**

1. Deitutako plazak

Lan-kontratuko bi administrari laguntzaile lanposturako deialdia egiten da, txanda irekiz, honako banaketa honen arabera:

- Lanpostu: Administrari laguntzaile (2 lanpostu). 11.1 eta 11.2 kodeak.
- Hizkuntza-eskakizuna: 3.
- Derrigortasun-data: 2012/01/31.
- Kategoria: C2.
- Soldata: 38.557,20 euro.
- Lan-kontratuko langileak.

Lanpostuaren eginkizunak:

11.1 Fakturazio-prozesua gauzatzea:

- Fakturen erregistroa eta kontrola.
- Aurrekontuen, emate-agirien eta gastuaren arduradunaren oniritziaren kontrola.
- Fakturen zerrendak egitea.
- Gastuaren fiskalizazioa izapidetzea.
- Fakturak ordaintzeko beharrezkoak diren espedienteak egitea (ikuskitzetako kontratu handiak barne).
- Aurrekontuaren betearazpena kontrolatzea II. kapituluan. Gastu-arduradunei txosten ekonomikoak egitea, kontrolatzeko.
- Dirulaguntzak: dirulaguntzak eskatzeko eta justifikatzeko dokumentazioa biltzea eta aurkeztea.
- Auditoretzak: auditoreek, Estatuko Kontuen Auzitegiak eta abarrek hirugarrenei egindako ordainketei buruzko dokumentazioa aurkeztea.
- Ordainketa-epemugen kontrola.
- Ordainketa-aginduen zerrendak.
- Hornitzaileen datu-basea mantentzea.
- Hornitzaileekiko harremana: hornitzaileei aholkularitza ematea administrazio-araudia betetzeko (faktura elektronikoa, kontratu handia...).
- Hornitzaileek proposatutako eskaintzak aztertzea.
- Faktura elektronikoa eta SARTU plataforma
- Kontratuen edukia kontrolatzea.
- Ordainketa egitea: transferentzia telematikoko fitxategiak sortzea, online ordainketak, kontu-zenbakiak egokitzea.
- Jendearen arreta.

11.2. Testuen itzulpena:

- Gaztelania-Euskara, Euskara-Gaztelania.
- Kultur etxeen, gizarte-etxeen eta Social Antzokiaren publizitate-jarduerak gauzatzeta.
- Social Antzokiaren webgunea eta sare sozialak mantentzea.
- Social Antzokiko bazkideentzako arreta.

Programazio zinematografikoaren barruan zereginak gauzatzea:

- Zinema-banatzzaileekiko harremana.
- Filmak jasotzea eta itzultzea.



- Publizitate-euskarrien kontrola.
 - Karteldegiak mantentzea.
- Ikuskizunen programazioaren barruan zereginak gauzatzea:
- Konpainiekiko harremana.
 - Publizitate-euskarrien kontrola, programazio-datuen kontrola helburu estatistikoe-kin eta dirulaguntzak prestatzea.
 - Jendearentzako arreta.

2. Parte hartzeko baldintzak

2.1. Plazak lortu nahi dituztenek oinarri orokorretako 2. paragrafoan izaera oroko-rrarekin ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.2. C2 azpitaldeko plazak hautatzeko deialdietan izena emateagatiko tasaren zen-batekoa honako hau da: 9 euro.

2.3. Oinarri orokorretako 2. h) atalean xedatutakoari dagokionez, Derrigorrezko Bi-garren Hezkuntzako graduatu-titulua edo oinarrizko lanbide-heziketako heziketa-zikloa, edo baliokideko titulazioa eskatzen da.

3. Lanpostuak esleitzeko berariazko betekizunak

3.1. Deialdi honen xede diren plazei lotutako lanpostuetan, 3. hizkuntza-eskakizu-nak bete beharko dira. Derrigortasun-data igarota duten lanpostuek euskara jakitea es-katzen dute.

Betekizun horiek oinarri orokorren 2. eta 7. oinarrietan ezarritakoaren arabera egiaz-tatu beharko dira.

4. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-sistema lehiaketakoa izango da, eta bi (2) zati izango ditu:

4.1.1. Lehen zatia, lehiaketa: hautagaiek eskabidean alegatu eta egiaztatutako me-rezimenduak aztertu eta baloratuko dira, autobalorazio-sistemaren bidez, eta bakoitz-a-ri dagozkion puntuak esleituko zaizkio, merezimenduen baremoaren arabera. Deialdia arautzen duten oinarri orokorretan puntuazioaren arabera ordenatutako instantzia-kopu-rua bakarrik baloratuko da.

Lehiaketa ez da baztertzailerik izango, baina beharrezkoa izango da puntu guztien %25eko gutxieneko puntuazioa lortzea, oinarri orokorretako 9.2 oinarrian ezarritakoaren ondorioetarako.

4.1.2. Bigarren zatia: euskara-proba: nahitaezkoa eta baztertzailerik, lotutako lan-postuak dituzten, 3. hizkuntza-eskakizuna duten eta nahitaezko izaera duten lanpostuak dituzten hautagaien zatia. Nolanahi ere, maila horri dagokion euskararen ezagutza zehaz-tea eta egiaztatu izango da proba.

Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta dagoenean, ez da egiaztatu beharko. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berariaz Basau-riko Udal Kultur Etxeari erregistro horretan egiazta dezan.

Hala ere, erregistro horretan jasota ez dagoen baina azaroaren 9ko 297/2010 Dekre-tuaren arabera baliozkotutako beste edozein euskara-titulu edo -ziurtagiri aurkeztu egin beharko da (297/2010 Dekretua, azaroaren 9koa, euskara egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliozkotzeari eta horiek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Batera-tuko mailekin parekatzeari buruzkoa).

3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu nahi dutenek, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan xedatutakoaren babesean (47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak onartzekoa eta euskarazko hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien bidez egiaztatzen salbues-tekoa), dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute. Ondorio horietarako, ETZEB Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan baliozkotu diren salbues-penak baino ez dira onartuko.

**5. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa**

5.1. Lehiaketaren kalifikazioa merezimen-duen baremoaren arabera esleitutako puntuen baturak zehaztuko du (I. eranskina).

5.2. Bigarren zatia gai edo ez-gaitzat joko da derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuetarako hautagai diren pertsonentzat. Inolako hizkuntza-eskakizunik eskatzen ez denean, euskara jakitea merezimendutzat hartuko da.

5.3. Izangaien azken kalifikazioa hautaketa-prozesu osoan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du.

6. Lan-poltsa

Hautaketa-prozesu honetatik ez da enplegu-poltsarik sortuko.

7. Lehentasun-klausula aplikatzea

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua aplikatzeko, artikuluko horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula ez da aplikatuko, administrari laguntzaile lanpostuan emakumeen azpiordezkaritzarik ez dagoelako.



I. ERANSKINA

MEREZIMENDUEN BAREMOAK

Abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera:

a) Esperientzia: gehienez 80 puntu.**a.1. Esperientzia orokorra:**

Esperientzia orokorra da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuen esperientzia, deialdia egin duen administrazioan barne, kidego, eskala, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional parekatuei atxikitako lanpostuetan, baldin eta kidego, azpieskala, aukera, espezialitate edo talde profesional horiek hautaketa-prozesuaren xede badira, edozein izanik ere horien sorburua, funtzionario-izaera edo lan-harremana.

Gehienez 60 puntu emango dira, baremo honen arabera:

- Edozein administrazio publikotan egindako zerbitzuengatik, deialdia egin duen administrazioan barne, administrazio orokorreko eskaleko azpieskalako laguntzaile azpieskalan, C taldea, C2 azpitaldean, edo administrari laguntzaile kategorian, C2 azpitaldean, lan egindako egun bakoitzeko 0,0274 puntu.

a.2. Esperientzia espezifikoa

Hautaketa-prozesuan deitutako lanpostuak betetzeagatik deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuei 20 puntu emango zaizkie gehienez, berariaz, berezita eta esperientzia orokorraren balorazioaren osagarri gisa, baremo honen arabera:

- Deialdia egin duen Administrazioan administrazio orokorra eskalako laguntzaile azpieskalan, C taldean, C2 azpitaldean, edo administrari laguntzaile kategorian, C2 azpitaldean egindako zerbitzuengatik, lan egindako egun bakoitzeko 0,00914 puntu.

Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldiak batuko dira. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

b) Titulazioak eta probak gainditzea, karrerako funtzio finko edo lan-kontratu finko izaera lortzeko prozeduretan. Gehienez ere 20 puntu emango zaizkie merezimendu hauei

b.1. Deitutako plazara sartzeko eskatzen dena baino goragoko prestakuntza akademikoko maila batean (1) dagokion titulua izateagatik, betiere titulazioak deitutako plazari lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero: 10 puntu.

C2: Batxiler-titulua edo teknikari-titulua, edo baliokidea

b.2. Plaza lortzeko eskatzen den maila bereko titulu akademikoa izateagatik (bal-dintza gisa egiaztatutakoaz bestelakoa), betiere titulazioak deitutako plazei lotutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero: 7,5 puntu.

b.3. Erakunde ofizialetan jasotako prestakuntza (Herri Administra-zioko Eskola edo Institutuetan Herri Administrazioetan, Unibertsitateetan, Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-departamentuen mendeko ikastetxeak, Elkargo Profesionaletan, Mutualitateetan, Fundazioetan, Elkartean, Federazioetan) emandako edo homologatutako ikastaro-ordu bakoitzeko, 0,5 puntu, gehienez 20, betiere ikastaroak deitutako lanpostuen eduki funtzionalarekin bat etorritz gero.

b.4. Deialdia egin duen administrazioan oposizio-fasea gainditzeagatik, lanposturik lortu gabe bada ere, karrerako funtzionario edo lan-kontratu finkoko langile izateko prozeduraren administrari laguntzaile kategorian, betiere deialdia BOEn argitaratu den Enplegu Eskaintza Publikoaren bidez egin bada: 10 puntu.

b.5. Informatikako ezagutzak.



Informatika-ezagutzak baloratuko dira, 20 puntu gehienez, eta 5 puntu emango dira ziurtagiri hauetako bakoitzeko:

- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 oinarrizkoa.
- Oinarrizko Internet.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 oinarrizkoa.
- Microsoft Outlook XP/2003/2010.
- Microsoft Power Point 2000/XP/2003/2007/2010 maila bakarra.
- Microsoft Word 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Excel 2000/XP/2003/2007/2010 aurreratua.
- Microsoft Access 2000/XP/2003 aurreratua.
- Internet aurreratua.

Moduluak gainditu izana IT Txartelaren ziurtapen-sistemaren bidez egiaztatuko da, oinarri orokorretan adierazitakoaren arabera. Modulu beraren bertsio ezberdinak egiaztatzen badira, horietako bat bakarrik baloratuko da.

Deialdi honen ondorioetarako, maila aurreratua egiaztatzen dutenak oinarrizko maila egiaztatutzat joko dira.